

PROJET PEDAGOGIQUE

PEDAGOGIA EGITASMOA

DEFINITION :

Le projet éducatif regroupe les mesures, les idées et les principes mis en place par toute l'équipe de Maitetxoak pour assurer le bien-être affectif, psychologique et physique de l'enfant dans sa globalité : histoire personnelle, culture, sensibilité, capacité d'adaptation, langue maternelle.

A) L'ACCUEIL

Faire un accueil de qualité, c'est permettre aux parents et à l'enfant de se séparer et d'accepter l'absence de l'autre. C'est aussi adapter le mode d'accueil à l'âge de l'enfant, à la durée de son temps de présence et à sa langue maternelle.

Pour assurer cet accueil deux étapes importantes :

- *L'adaptation
- *Les arrivées et les départs

*L'adaptation :

Chez l'assistante maternelle, cette relation s'instaure dès que la directrice accompagne une famille à son domicile pour la première rencontre.

L'assistante se présente et fait visiter son appartement. Puis les parents parlent de leur enfant et de ses habitudes de vie.

L'assistante explique sa façon de travailler présente les autres enfants et sa propre famille.

DEFINIZIOA :

Heziketa egitasmoak, Maitetxoak-eko talde osoak plantan ezarri neurri, ideia eta printzipioak biltzen ditu haurraren ongizate afektiboa, psikologikoa eta fisikoa bere osotasunean segurtatzeko: historia pertsonala, kultura, sentikortasuna egokitze gai-tasuna, ama hizkuntza.

A) HARRERA

Kalitatezko harrera bat eskainiz, gurasoei eta haurrari bereizteko eta bestearen hor ez izatea ahalbidetzeko parada eskaintzen zaie. Harrera moldea haurraren adinari, haren presentzia denboraren iraupenari eta haren ama hizkuntzari egokitzea da ere.

Harrera honen segurtatzeko, bi urrats garrantzitsu:

- *Egokitzea
- *Heltzeak eta joateak

*Egokitzea:

Etxeko haurtzainaren etxean, harreman hau eraikitzen da zuzendariak familia bat bere etxera laguntzen duen orduko lehen elkartzeko.

Haurtzainak bere burua aurkezten du eta haren apartamendua bisitarazten. Ondotik, gurasoek haien haurra eta bere biziko usaiak aipatzen dituzte.

Haurtzainak bere lan egiteko moldea azaltzen du, beste haurrak eta bere familia aurkezten ditu.

Lorsque les parents ont donné leur accord, la « période d'adaptation » de l'enfant chez l'assistante maternelle peut commencer.

Elle se déroule selon un schéma bien défini :

- Le premier jour : une heure de présence de l'enfant en compagnie de ses parents.
- Puis la durée de l'accueil se prolonge ponctuée de moments clés pour la vie de l'enfant : biberon, sortie sommeil...
- La deuxième semaine, les journées de présence sont complètes mais plus courtes.

Durant cette période l'assistante maternelle débute un carnet de liaison parent/AM/crèche collective. Une partie de ce carnet est consacrée aux habitudes et à l'évolution de l'enfant. La deuxième est consacrée au temps d'accueil et au déroulement de la journée (heures de sommeil, repas, changes.) Il servira de support lors des visites de la puéricultrice et en cas de placement en « dépannage » chez une autre assistante maternelle.

Petit à petit l'enfant et les parents vont apprendre à se séparer grâce à un climat de confiance et de respect créé pendant cette période.

Lorsque l'enfant intègre la collectivité après être venu régulièrement pendant l'année passée chez son assistante, il n'y a pas d'adaptation à proprement parlé. Les parents sont invités à rencontrer la future équipe L'enfant qui est déjà familier des lieux prend place dans le groupe des moyens en commençant par participer aux activités puis aux repas pris en commun puis à la sieste...

Gurasoek haien adostasuna adierazi ondoren, hauraren « egokitze garaia » haurtzainaren etxean hasten ahal da.

Eskema oso zehatz baten arabera iragaiten da:

- Lehen egunean: haurra oren batez egonen da bere gurasoekin batera.
- Ondotik harreraren iraupena luzatzen da eta haurarentzat garrantzitsuak diren momentuak gertatuko dira: biberioia, ateraldia, loaldia ...
- Bigarren astean, presentzia egunak osoak dira baina laburragoak.

Garai horretan, etxeke haurtzainak guraso/EH/haurtzaindegi kolektiboa lotura liburuxka bat hasten du. Liburuxka horren zati bat hauraren usaia eta bilakaerari eskainia zaio. Bigarrena harrera denborari eta egunaren garapenari (lo orenak, apairuak, aldatzeak...) eskainia da. Euskarri gisa erabilia izanen da haur hezitzailearen bisiten kari edo « konponketa » kokapen kasuan beste etxeke haurtzain baten etxean.

Pixkanaka haurrak eta gurasoek ikasiko dute bereizten garai horretan sortu konfiantza eta errespetu giro bati esker.

Haurrak kolektibitatean sartzen bada, aitzineko urtean erregulariki etorri ondoren bere haurtzainaren etxera, ez da baitezpadako egokitzerik. Gurasoak, talde berria ezagutzera gomitatuak dira. Jadanik lekuari usatua den haurrak tokia hartzen du ertainen taldean jardueretan parte hartuz eta ondotik denen artean hartu apairuetan eta siestan...

L'adaptation d'un enfant directement en collectivité en milieu bascophone ou en francophone obéit au même schéma : fiche d'habitude, temps d'adaptation, cahier de transmission.

Les enfants et sa famille en milieu bascophone sont toujours accueillis par l'animatrice en langue basque.

Grâce à ces temps d'adaptation, la qualité des relations est privilégiée par une bonne connaissance des uns et des autres.

*Les arrivées et les départs :

Ces moments-là sont les moments clé de la journée et demandent une grande disponibilité autant de la part des parents que de l'assistante maternelle ou du personnel de la crèche.

Pour le bien être de l'enfant, il faut prévoir un temps d'échange pour éviter des séparations trop rapides qui sont traumatisantes pour l'enfant.

Par ailleurs, ce temps ne doit pas être trop long pour que l'enfant n' imagine pas que ses parents restent avec lui. L'assistante ou l'animatrice, à ce moment-là, peut prendre l'enfant avec elle et l'installer avec un jeu. Dans tous les cas, les parents doivent verbaliser leur départ.

Les transmissions sont notées sur le cahier de liaison.

De la même façon, il est nécessaire de prendre le temps de retrouver son enfant en s'inquiétant de son vécu durant la journée et respectant ce qu'il est en train de faire à ce moment-là (goûter, jeu...).

Haur baten egokitze zuzena kolektibitatean ingurune euskaldunearan eskema berdinaran araberakoa da: usaia fitxa, egokitze denbora, transmisio kaiera.

Ingurune euskaldunearan bizi diren hurrei eta bere gurasoei, animatzaileak harrera beti euskaraz eskaintzen die.

Egokitze denbora hauei esker, harremanen kalitatea, batzuen eta besteen ezagutza on batek lehenesten du.

*Heltzeak eta joateak:

Momentu horiek eguneko momentu garrantzitsuenetakoa dira eta eskurakoitasun handi bat eskatzen dute bai gurasoen aldetik eta bai etxeko haurtzain eta haurtzaindegiko langileen aldetik.

Haurraren ongizaterako, trukatzeko denbora bat asmatu behar da bereizketa lasterregiak saihesteko, traumatizagarriak direlako haurrarentzat.

Bestalde, denbora horrek ez du luzeegia izan behar haurrak ez dezala pentsa bere gurasoak berarekin egoten direla. Haurtzainak edo animatzaileak, une horretan, haurra berarekin hartzen ahal du eta joko batekin jarri. Kasu guzietan, gurasoek haien abiatzea aipatu behar dute. Transmisioak lotura kaieretan idatziak dira.

Molde berdinean, beharrezkoa da bere haurra berriz ikusteko denbora hartzea egunearan zehar bizi duenaz kezkatuz eta momentu horretan egiten duena (askaria, jokia...) errespetatuz.

Le personnel doit aider l'enfant et les parents à se retrouver comme elle les a aidés à se séparer.

En collectivité, de 7h30 à 9 heures environ, l'accueil se fait dans l'atrium, lieu d'échange et de vie, commun à tous les enfants. Dès 7h30, les enfants bascophones sont accueillis en langue basque par leur animatrice. De même, les départs se font à partir de 17h environ jusqu'à 18h30 dans ce même lieu et dans les mêmes conditions. Entre temps, de 9h à 17h, les enfants sont dans leurs services respectifs.

B) LES REPAS

-Chez l'assistante maternelle ou en collectivité : le rythme des repas est calqué sur les habitudes de la maison. Le bébé prend le biberon dans les bras de l'animatrice qui par son regard, ses gestes, ses paroles rassurantes réunit autour du bébé les conditions nécessaires au bon déroulement de ce moment.

Lorsque l'enfant grandit, ce sont les parents qui prennent l'initiative d'introduire petit à petit la nourriture variée et de proposer à leur enfant de nouvelles expériences (cuillère, verre, morceaux...). La professionnelle assure la continuité des apprentissages. Elle doit veiller à ce que les repas se déroulent dans une ambiance calme et détendue propice à l'échange.

Le bon déroulement d'un repas passe par l'écoute et le respect des goûts et des envies de chacun.

Langileek haurra eta gurasoak berriz elkartzera lagundu behar dituzte elgarrengandik bereizten lagundu dituzten bezala.

Kolektibitatean, 7:30etatik 9:00 irira, harrera atarian burutzen da. Hau trukatzeko eta bizi gunea da, haur guzietan partekatzen dutena. 7:30etan berean, haur euskaldunei harrera euskaraz eskaintzen die haien animatzaileak. Era berean, joateak 17:00ak iritik 18:30etara leku berdinean eta baldintza berdinetan burutzen dira. Anartean, 9:00etatik 17:00etara, haurrak haien zerbitzuetan dira.

B) APAIRUAK

-Etxeko haurtzainaren etxean edo kolektibitatean: apairuen erritmoa etxeko usaietan kalkatua da. Niniak biberona animatzailearen besoetan hartzen du eta honek, bere begirada, jestu, eta hitz lasaigarriekin, niniaren inguruan momentu hau ongi iragan dadin beharrezko baldintzak sortzen ditu.

Haurra handitzen delarik, gurasoek dute elikadura desberdindua pixkanaka sartzeko eta haien haurrari esperientzia berriak proposatzeko erabakia hartzen (koilara, basoa, puskak...). Profesionalak ikasketak berrien jarraipena segurtatzen du. Zaindu behar du apairuak giro lasai batean gerta daitezen, harremanei lehenetsia emanaz.

Apairu bat ongi iragaiteko, batak bestearen entzuten egon behar du eta haren gustu eta nahiak errespetatu.

-Plus tard, l'enfant partage son repas avec les autres. Les repas sont pris à heure fixe dans la salle à manger. Il permet à l'enfant de faire des apprentissages, de découvrir des aliments, des saveurs mais aussi d'apprendre des règles de vie en communauté et de savoir vivre.

Les enfants les plus grands du secteur bascophone partagent leur repas avec les autres enfants mais sont regroupés à leur propre table autour de la professionnelle bascophone.

L'attitude et le comportement de l'adulte, qui partage le repas, aident l'enfant à vivre ce moment avec les autres (attendre son tour, rester assis, inciter l'enfant à goûter certains aliments....)Le repas va pouvoir ainsi devenir un moment convivial d'échange, de plaisir et de discussions qui vont l'amener vers plus d'autonomie.

C) LE SOMMEIL ET LE REPOS

Le petit enfant a un besoin important de sommeil. Des conditions favorables à un bon repos lui sont nécessaires pour se construire, se structurer et grandir.

A l'aide de la fiche établie avec les parents sur les habitudes de l'enfants, l'assistante maternelle veille à respecter son rythme de sommeil (coucher à heures régulières) ainsi que ses rituels d'endormissement (câlin, musique, veilleuse)et les objets transitionnels qui l'accompagnent(doudou, tétine).

De plus quelques conditions de sécurité sont à respecter : tant qu'un bébé ne se retourne pas seul, il doit être couché

-Berantago, haurrak bere apairua besteekin partekatzen du. Apairuak tenore finkoan hartuak dira jangelan. Haurrari ikaskuntzak egiteko, elikagaiak, zaporeak ezagutzeko baina ere komunitatean bizitzeko eta bizitzen jakiteko arauak ikasteko parada eskaintzen die.

Euskaldun sektoreko haur handienek haien apairuak beste haurrekin partekatzen dituzte baina haien mahai propioan bilduak dira profesional euskaldunaren inguruan.

Apairua partekatzen duen helduaren portaera eta jarrerak haurra momentu hau besteekin bizitzen laguntzen dute (bere itzulia igurikatu, jarririk egon, haurra bultzatu elikagai batzuk dastatzera)Apairua honela, autonomia handiagoa lortzera eramanen duten harreman, plazerra eta solasaldi momentu adiskidetsua bilakatzen ahalko da.

C)LOA ETA ATSEDENA

Haur ttipiak lo behar handi bat du. Atsedena on baterako baldintzak beharrezkoak zaizkio garatu, bere burua eraiki eta handitzeko.

Haurraren usaiez gurasoekin batera osatu fitxari esker, etxeko haurtzainak bere lo erritmoak errespetatzea zaintzen du (ordutegi erregularrarekin etzanaraziz) bai eta lokartzeko erritua batzuk (perekak, musika, gau-argia) eta laguntzen duten gauzaki transizionalak (ttuttua, titiordea).

Gainera, seguritate baldintza batzuk errespetatu behar dira: Nini bat bakarrik itzulikatzen ez deno,

sur le dos dans un lit agréé sans entourage de lit dans une gigoteuse si nécessaire et sans bijoux ni chaînette.

Chez l'assistante maternelle, l'enfant est souvent seul pendant son temps de sommeil ce qui favorise le respect de son rythme propre. Plus tard quand il intègre la crèche collective il dort en compagnie de plusieurs enfants toujours dans le même lit et la même gigoteuse. Un adulte veille à ce que chacun s'endorme avec son doudou ou sa tétine et calme si nécessaire les plus anxieux.

L'enfant va alors apprendre à respecter le sommeil du copain, se lever sans réveiller les autres et donc entrer dans un processus de socialisation.

Les temps de coucher et de lever vont permettre à l'enfant d'apprendre peu à peu à s'habiller et se déshabiller avec l'aide de l'adulte et ainsi favoriser son autonomie.

D) LES JEUX LIBRES, ACTIVITES ACCOMPAGNEES

L'enfant de moins de 15 mois est dans la découverte du monde qui l'entoure.

Il désire goûter, sentir, écouter, explorer.

L'observation et la connaissance des compétences de l'enfant permettent de respecter ses besoins, ses désirs et ses rythmes de vie.

Chez l'assistante maternelle : elle doit lui aménager un espace de jeux sécurisé. Tout est organisé pour stimuler et permettre à l'enfant

bizkarraren gainean etzanik egon behar du, ohe-ingururik gabeko ohe onetsi batean, lo zaku batean hala behar izanez gero, eta bitxirik edo katetxorik gabe.

Etxeko haurtzainaren etxean, haurra usu bakarrik da bere loaldiaren denboran, eta horrek laguntzen du bere erritmo propioaren errespetua. Berantago, haurtzaindegi kolektiboan sartzen delarik, beste haur batzuekin batera lo egiten du, beti ohe berdinean eta lo zaku berarekin. Heldu batek zaintzen du bakoitza bere ttuttua edo titiordearekin lokar dadin eta hala behar izanez gero, zaintsuenak lasaitzen ditu.

Haurrak orduan ikasiko du adiskidearen loa errespetatzen, besteak iratzarrarazi gabe jeikitzen eta beraz, sozializatze prozesu batean sartzen.

Oheratu eta jeikitze momentuei esker haurrak pixkanaka janzten eta biluzten ikasiko du heldu batek lagundurik eta horrek haren autonomiari mesede eginen dio.

D) JOKO LIBREAK, JARDUERA LAGUNDUAK

15 hilabete petiko haurrak, inguratzen duen mundua ezagutzen ari da.

Dastatu, usaindu, entzun, miatzeko gogoia du.

Haurraren gaitasunak behatu eta ezagutzuz, bere beharrak, desirak eta bizi erritmoak errespetatzen dira.

Etxeko haurtzainaren etxean: joko eremu segurtatu bat prestatu behar dio. Dena antolatua da estimulatzeko eta haurrari bere inguruan dagoen

de découvrir tout ce qui se trouve autour de lui. Il est donc important de pouvoir lui proposer chaque jour des jeux différents (sonores, mobiles, encastrement, hochet de plusieurs matières)

La journée est rythmée par des moments différents suivant les besoins de l'enfant. L'assistante maternelle alterne câlins, jeu, promenade. Tout est organisé pour le bien être affectif et psychologique de l'enfant.

A la crèche : dans un autre environnement, avec des enfants et du matériel différent, l'enfant va faire d'autres expériences. L'éducatrice va proposer des activités plus élaborées : jeu d'eau, éveil sonore et musical, comptine, manipulation...

L'échange, le questionnement et les discussions amenés au travers de ces activités vont permettre une formation continue et un meilleur suivi des assistantes maternelles. L'éducatrice doit pouvoir répondre aux demandes et aux besoins de celles-ci.

Dans les secteurs bascophones et francophones de la crèche collective, les jeux et activités sont adaptés en fonction de l'âge. Pour les bébés les soins de maternage sont privilégiés ainsi que les différents éveils : tactile, musical...

Pour les « moyens et les grands », ces apprentissages sont approfondis par le biais d'activités plus spécifiques et du matériel adapté visant à amener l'enfant à plus d'autonomie. Ces expériences vont amener l'enfant à entrer petit à petit dans un processus de socialisation.

guzia ezagutzen laguntzeko. Garrantzitsua da beraz egun guziz joko desberdinak proposatzea (soinuzkoak, higikorrak, ahokatzea, materia desberdinetako txintxirrina...).

Eguna erritmatzen dute haurraren beharren arabera momentu desberdinak. Etxeko haurtzainak perekak, jokoa, ibilaldia aldizkatzen ditu. Dena antolatua da haurraren ongizate afektiboa eta psikologikoa errazteko.

Haurtzaindegian: beste ingurumen batean, haur batzuk eta material desberdinarekin, haurrak beste esperientzia batzuk eginen ditu. Hezitzaileak jarduera landuagoak proposatuko ditu: ur jokoak, soinu eta musika gogo pizte, josteta kantu, maneiua...

Jarduera hauetan zehar ekarri trukatzera, galdekatzea eta solasaldiei esker, etxeko haurtzaindegien formakuntza jarraikia eta haien jarraipen hobe bat gertatuko dira. Hezitzaileak hauen eskaera eta beharrei erantzun behar die.

Haurtzaindegi kolektiboko sektore euskaldun eta frantsesdunetan, jokoak eta jarduerak adinaren arabera egokituak dira. Ninientzat maternatze zainketak lehenetsiak dira, bai eta gogo pizte desberdinak: hunkiena, musikala...

« Ertain eta handientzat », ikaskuntza hauek jarduera berezituago batzuk eta haurra autonomoagoa bilakazteko helburua duen material egokituagoaren bitartez sakontzen dira.

Dans le secteur bascophone qui accueille des enfants de tous les âges, le matériel nécessaire à la bonne application du projet linguistique est en basque : livres CD, jeux...

Dans le même sens, pour faire profiter un maximum d'enfant de la richesse d'une langue, d'une culture différente, nous organisons des activités communes aux enfants francophones et bascophones.

E) LES SOINS, L'HYGIENE

Les soins et l'hygiène corporelle doivent toujours être réalisés après en avoir informé l'enfant et, en fonction de son âge, avec son accord .Ils sont réalisés avec douceur et dans le calme tout en parlant avec l'enfant. Il faut éviter des soins trop intrusifs : prise de température rectale, administration de suppositoires...

Les soins corporels permettent une relation privilégiée, des échanges et des moments de maternage. Des paroles sécurisantes permettent des soins de qualité.

Il faut aussi respecter des règles d'hygiène : lavage correct des mains, évacuation des couches et mouchoir, désinfection du thermomètre, et de la table à langer...

Pour ce qui est des soins dit d'urgence, la professionnelle se réfère au protocole d'urgence, en informe la puéricultrice et les parents. Tous les gestes et interventions ainsi que l'heure des appels sont notés dans le carnet de liaison.

Adin guzietako haurrak hartzen dituen euskaldun sektorean, hizkuntz egitasmoaren aplikazio onari beharrezkoa zaion materiala euskaraz da: liburuak, CD, jokoak...

Zentzu berean, haur kopuru handiena hizkuntza, kultura desberdin batez balia dadin, haur euskaldun eta frantsesdun haurrei bateragarri zaizkien jarduerak antolatzen ditugu.

E) ZAINKETAK, HIGIENEA

Zainketak eta gorputz higienea beti haurra abisatu ondoren burutu behar dira eta, bere adinaren arabera, haren adostasunarekin. Goxoki eta lasaiki burutzen dira, haurrarekin mintzatuz beti. Zainketa sobera intrusiboak saihestu behar dira: temperatura ipurditik hartzea, supositorioak ematea...

Gorputz zainketei esker, harreman lehenetsi bat, trukatzeko eta maternatze uneak gauzatu behar dira. Hitz lasaigarriek kalitatezko zainketak eragiten dituzte.

Higiene arauak errespetatu behar dira ere: eskuak ongi garbituz, xataurrak eta mokanesak beti botatuz, termometroa eta aldatzeko mahaia desinfektatuz...

Larrialdi deitu zainketei dagokienez, profesionalak larrialdiko protokoloa jarraitzen du, haurtzaina eta gurasoak abisatzen ditu. Jestu eta interbentzio guztiak, bai eta deien tenoreak lotura liburuxkan idatziak dira.

Pour la préparation des repas, l'assistante maternelle applique des règles d'hygiène simples : lavage des mains, désinfection des plans de travail, surveillance des dates de péremption, maintien la chaîne du froid..

En collectivité, la cuisinière applique les règles d'hygiène HACCP.

Quelque soit le mode d'accueil proposé, l'équipe de Maitetxoak privilégie toujours, dans une notion de plaisir, le bien être, le respect et l'épanouissement de l'enfant.

Apairuen prestakuntzari dagokionez, etxeko haurtzainak higiene arau sinpleak aplikatzen ditu: eskuak garbitu, lan gainekoak desinfektatu, baliogabetze datak zaindu, hotz katea mantendu..

Kolektibitatean sukaldariak HACCP higiene arauak aplikatzen ditu.

Proposatu moldea nola nahiko izanik ere, Maitexoakeko taldeak haurraren ongizatea, errespetua eta loratzea, plazer nozio batekin, lehenesten du beti.